



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
27. alea | 2008ko Urtarrila/B | nazioartea@euskaleskola.org |
<http://www.euskaleskola.org/>

UNIBERTSITATEA ETA ENPRESA

Aurreko alean Diagonal Periodicok eginiko ikerketa baten inguruan hitz egiten genuen. Bertan Espainiako Graduen Dekretu berria ikertzen zuten eta hainbat ikasle talde ezberdin elkarrizketatzen zituzten. Madrilen egiten den hamaboskari honetan Unibertsitatea eta Enpresaren arteko harremana ekartzen dute portadara oraingo honetan, titular argi honekin: “Badator enpresa-unibertsitatea”.

Ale honetan 4 atal ezberdinetan banatzen dute erreportajea. Lehenengoan galdera bat egiten dute: “Badu unibertsitateak interesik kapitalarentzat?”. Bigarrenean Bricall informea egin zenetik (LOUa, ReLOUa eta Graduen Dekretua egiteko erabili den informea) igaro diren 8 urtetan egindakoak aztertzen dira. Hirugarren atalean Bologna Prozesuaren kontraerreformen bigarren olatua ikertzen da. Laugarrenean, azkenik, beka-maileguen inguruan hitz egiten da.

Lehenengo ikerketa Filosofian Katedraduna den Montserrat Galceranek sinatzen du. Bertan antzina politikariak edo mezenasak agertzen ziren lekuetan orain enpresak eta banketxeak agertzen direla aipatzen du. Munduko Bankuak 1998an gobernuei unibertsitateak malgutu eta kosteak murriztu behar zituztela esan zien. Lehenengoak karrerak desagerrarazi eta matrikularen arabera *ad hoc* sorturiko ikasketak eskaintzea litzateke; bigarregoa ikasleen esku jartzea kosteak eta irakasleen kontratu motak liberalizatzea, ikerketa kontratu ez-egonkorrak eskainiz. Baina haruntzago doa: Bricall informeak jasotzen zituen edukiak gogor kritikatzeko: hezkuntza publikoaren pribatizazioa, giza kapitalaren sorrerarako instituzio baten sorrera, unibertsitatea lurraldeari lotua egon beharrean mundu mailako ranking batean sartzea...

Carlos Sevillak egiten duen ikerketan 2008tik aurrera unibertsitateek jorratu beharreko esparru berriak hitz egiten du: finantziarioa bilatzea. Honetarako ikasleek ordaindu beharreko tasak handituko dira, baina garrantzi berezia hartzen dute enpresek. Europar Batasunak unibertsitatean BPGaren %2a gastatu nahi du (%1,14a da oraintxe). Baina gobernuek inbertitu beharrean gainontzeko diru hori familia, ikasle eta enpresek jarri beharko dute. Unibertsitateen ardura izango da inbertitzaileak lortzea, hau da, dirua jartzen badute zer lortzen duten adierazi behar diote. Olatu berri honetan Europa osoan zehar errektoreen boterea handiagotu eta Klaustroena txikitzea aurreikusten da, eredu presidentzialista batekin, eta enpresek Gizarte Kontseiluetan duten boterea handitzea.

Azkenik Miguel Urbanek beka-maileguen inguruko artikulua idazten du. Datu ugari eskaintzen ditu, maileguen ordainketaren inguruan. Ondorioa: ikasleen gehiengoak unibertsitateetik 15 urtetan ordaindu beharko duen zor batekin aterako dira. Banketxeak dira, noski, guzti honetan gehien irabazten dutenak.

Guztiz gomendagarria da irakurtzea, eskaintzen dituzten klabeak direla eta, alde batetik, eta gazteleraz egon arren oso erabilgarria izan daitekeelako. Diagonal Periodico Creative Commons lizentzia pean editatzen da eta kopiatu eta bere edukiak barreiatzeko askea zara eta!

Informazio gehiagorako:

<http://www.diagonalperiodico.net/spip.php?article5279>

<http://www.crue.org/informeuniv2000.htm> Bricall Informea (479 orrialde)

RATZINGER EZ ZEN SAPIENZARA JOAN

Josef Ratzinger (*alias* Benedicto XVI) Erromako Sapienza unibertsitatea bisitatzera joateko intentzioa zuen. Halakoa zen, gutxienez, Renato Guarini errektorearen intentzioa... baina ezin! Errektorearen nahia ikasturte akademikoaren inauguraziora (urtarrilaren 17an) aita-santua agertzea zen, unibertsitatearen laikotasuna zalantzan jarriz. Berriak berehala sortu zuen komunitate laikoaren haserre eta kanpaina baten ostean ez agertzea erabaki zuen.

17 gli studenti
Gennaio anno del signore 2008
inaugurano
la loro università
ore 12.00: **assedio sonoro**
piazze aldo moro
ore 15.00: **frocessione**
intorno la città universitaria
ore 17.00: **lectio magistralis di:**
paola cortellesi
andrea rivera
banda osiris
interventi di docenti / dj set
(davanti il rettore)
collettivo degli studenti / collettivi universitari
romani / facciamo breccia / collettivo la metà di
eva / collettivo le rinchiate

Unibertsitarioen iritiz “Fedearen Dotrinaren Kongregazio”ko buru izandakoa (hau da, lehenago “Ofizio Santuaren Tribunal” zena) unibertsitatea batera joatea irain larria da: horiek izan ziren Galileoren aurkako prozesua egin zutenak, azken finean. Aitzakia hala ere orain katolikoen buruek heriotza-zigorraren aurkako jarrera litzateke, horren inguruan baitzen irekiera lezioa. Baina horren atzean dagoen guztia ez dute ahazten unibertsitarioek. Azken aste hauetan sekulako kanpaina egin dute abortoaren aurka eta patriarkatua eta “familia tradizionalaren” alde.

Gainera Benedicto XVI.a bera izan zen zientziak gizakia salbatu ezin zuela esan zuena eta hori zientziari egin dizkion ekarpenengatik famatua izan den unibertsitate batean ezin zuten onartu.

Azkenean aita-santua ez zen unibertsitatera joan, segurtasun kontuak argudiatuak. Baina hainbat ekimen zeuden prestatu eta egin egin dira. Urtarrilaren 14an kultur jarduerak egin ziren unibertsitatean. Urtarrilaren 15ean eztabaida publikoak egin ziren Fisika eta Zientzia Politikotan, hainbat aditu eta pentsalarirekin.

Urtarrilaren 17an, hau da, bertara agertu behar zen egunean, Prozesio Laiko bat antolatu zuten, burrunbada bat eta kontzertu handi bat goiz osoan zehar.

Informazio gehiagorako:

<http://roma.indymedia.org/node/1375>

HIZKUNTZA BAT GUTXIAGO MUNDUAN

Munduan 6912 hizkuntza zeuden Herriek Bere Eskolako ale hau idazten hasi orduko. Atal honetan ikasle katalanek ertainetan deitu duten grebaren inguruan informazioa eskaini behar genuen. Pascual Maragallen anaia eta Hezkuntza Sailburua denak batxilergoan gaztelera eta katalanezko ordu bana kenduko ditu ikasleek enpresetan praktikak egin ahal ditzaten batxilergoan eta, beraz, enpresa “gertuagotik” ezagutu dezaten.

Baina berri lazgarriago bat gertatu da berri hori jakin genuenetik: Eyak hizkuntza, Alaskan hitz egiten zen Na-dene hizkuntzetako bat, hil da. Hala da, 2007ko urtarrilaren 23an Marie Smith Jones izeneko eyak herriko buruzagia eta hizkuntza hau menperatzen zuen azkeneko herritarra hil zen, 89 urte zituela. Ez da prozesu bortitz bat izan bakar-bakarrik. Inguruan zituzten beste herrietako hizkuntzek indar handiagoa zuten eta Eyak herriko biztanleek hauek erabiltzen zituzten gehiagotan komunikatzeko. Baina horri ingelarak izan duen jarrera aipatu behar da, inposaketaren bitartez eta eskoletan jatorrizko irakaskuntza ez irakastarren asko lagundu baitute Eyak hizkuntzaren desagertean.

Urtero hainbat hizkuntza txiki desagertzen dira munduan. Badakigu euskara ez dagoela egoera berdinean, noski. Baina eskolak ez badu euskalduntzen jende askok gaztelera, frantsesa edo ingelera erabiliko dute kanpokoekin eta ingurukoekin harremanetan jartzeko, Eyak herriko hainbatek egin zuten bezala. Hizkuntza guztiak Gizateriaren Ondare dira, eta horregatik behar-beharrezkoa da hauek defendatu, irakatsi eta erabiltzea. Horregatik berriro ere argi utzi nahi dugu eskolak euskaldundu behar duela, hizkuntza gal ez dadin, guztiok erabili ahal dezagun.

Informazio gehiagorako:

http://eu.wikipedia.org/wiki/Eyak_hizkuntza